



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2024ko urriaren 1ko bilkura

Bi mila eta hogeita lauko urriaren lehenean, arratseko zortzietan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, INARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : CASIRIAIN Elena.

Deialdiaren eguna : 2024ko irailaren 26

Afitxatze eguna : 2024ko irailaren 26

7. ERABAKIA: LANDA-BIDEEN BALIOGABETZEA ETA ALIENATZEA MADARIALDEKO BIDEAREN ETA ANTZARAMENDIKO BIDEAREN ARTEAN, EDO F 24 LUR SAILA (7.10 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari jakinarazi dio Madarialdeko bidearen eta Antzaramendiko Bidearen arteko landa-bidearen zati bat eta Madarialdeko bidearen eta F24 lur sailaren arteko bi landa-bide zatia ez direla gehiago existitzen terrenoan, baina haatik katastroan bai agertzen direla.

Azaldu du herriko bide horien azalera ohiak herriaren jabego izaten segitzen dutela baina ez zaizkiola baliagarri. Ondorioz, indargabetzea eta inguruko jabeen ematea proposatu du, inkesta publikoa burutu-eta.

Auzapezaren azalpenak entzunik eta luzaz eztabaidaturik, Herri Biltzarrak,

- **ERABAKI DU**, Madarialdeko bidearen eta Antzaramendiko Bidearen arteko landa-bide zati bat eta Madarialdeko bidearen eta F24 lur sailaren arteko bi landa-bide zatia indargabetzea eta inguruko jabeen probetxuko alienatzea.

AGINDU DIO, Auzapezari ekintza horren burutzeko behar diren izapide guzien egitea.

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

Kide kopurua : 15
Hor zirenen kopurua : 11
Balizko boz kopurua : 11
ALDE : 11
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.
Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko urriaren 1an,
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2024/10/4an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/10/4an.